

Liburu hau hiru gai multzotan zatituta dago. Lehen gai multzoak bost unitate didaktiko ditu; bigarrenak, hiru unitate; eta hirugarrenak, lau unitate.

Lehen gai multzoan, munduko, Iberiar penintsulako eta Euskal Herriko geografia eremuak aztertzen dira; bigarrenean, gerren arteko garaitik gaur egungo mundura arteko bilakaera historikoa aztertzen da; eta hirugarrenean, gaur egungo munduko gertakizunak eta arazoak aztertzen dira.

**Gai multzo** bakoitzak honako atal hauek ditu:

## ORRIALDE MOTIBATZAILE BIKOITZA

Orrialde motibatzaile bikoitza eduki multzoan ageri diren **edukien egiturarekin** eta horiei dagokien **irudiarekin**.



**Unitate didaktiko** bakoitzak honako atal hauek ditu:

## ORRIALDE MOTIBATZAILE BIKOITZA

Ezkerreko orrialdeak **Unitate honetan hauxe ikasiko duzu:** izeneko atala du. Unitate bakoitzean ageri diren edukien aurkibidea azaltzen da, eta, horrekin batera, azterturiko edukiekin zerikusia duen irudi bat.




## TESTU ORRIALDEAK

Orrialde horietan, unitateko funtsezko edukiak garatzen dira. Bertan ageri diren grafikoak, taulak, argazkiak eta testu osagarriak unitate didaktikoan landuriko oinarritzko edukien ulermena errazten laguntzen digute. Aldi berean, unitatean zehar, honako hauek planteatzen dira:


**?** galderak.

**K** testuan azalduko kontzeptu garrantzitsuenak.



## MAPA KONTZEPTUALA ETA ARIKETAK

Ezkerreko orrialdean, goiko aldean, **Mapa Kontzeptuala** ageri da, eta bertan unitateko eduki nagusiak azpimarratzen dira. Jarraian, unitateko edukiak lantzeko galderak ageri dira, sintesi gaitasuna hobetzeko eta unitate bakoitzean garaturiko edukiak elkarrekin erlazionatzeko. Ariketekin batera, argazkiak eta testu osagarriak ere ageri dira.



## AZKEN ORRIALDE BIKOITZA

Ezkerreko orrialdean, **Prozedura** izeneko atala sartzen da. Izaera geografikoa edo historikoa dituzten gaietarako buruzko ikasketa eta lana errazten ditu prozedurak. Eskuineko orrialdean, **Ebaluazioa** izeneko atala sartzen da. Ebaluazioan, testuak aztertuko dira, mapen eta irudien iruzkinak egingo dira, kontzeptuak definituko dira... Azken atal honek unitatean zehar lortu diren ezagutzak frogatzeko balio du.

